

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Amoroto



Aurkibidea

Udalerria: Amoroto

Sarrera



Bizkaiko barnealdeko udalerri euskalduna da, Lea-Artibai eskualdean kokatua. Mendi aldean kokatuta dago, landa ingurunean, eta udalerriko behealde Lea ibaiak zeharkatzen du. Mugakideak hauexek ditu: Iparraldean Lekeitio, hegoaldean Markina-Xemein, mendebaldean Gizaburuaga eta ekialdean Berriatua. Lau auzok osatzen dute herria: Odiaga, Ugaran, Urrutia eta Elexalde (auzo nagusia). Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 396
- **Euskaldunak:** %90,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **7**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **111**
- Transkribatutakoak: **6**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **108**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRLAren Bizkaiera Bilduma
- Lea Ibarreko Ahotsak

Hizlariak

Alejandro Antxustegi Asumendi (1931)



Odiaga auzoko Etxezarra baserrian jaio eta bizitakoa. Ama Etxezarra bertakoa zuen eta aita Enparanekoa. 9 neba-arrebatan bigarrena izan zen. Eskolara gutxi joan zen, 9 urterekin baso-lanetan hasi zen, eskola baino gurago zuen eta. Australiara azukre-kainaberak ebakitera joan zen, baina 2 hilabeteren ostean basoko lanetan hasi zen bertan. Eibarreko Laurona enpresarentzako **eskopeta ajustatzaile** ere aritu zen 6-8 urtez. 900 sagarlandara sartu zituen eta horixe izan du ogibide nagusi, 39 urtez neguro Benidormera joaten zen bitartean. Ehizazalea da Alejandro. 90 urtera arte buruz behera jarri izan da teilatu gainean, horretako bat jaio egin behar dela dio.

Angel Bermeosolo Arrate Zintzo (1942)



1942. urtean jaio zen Ispasterko Zatika auzoko Zatikatxu baserrian; Ispasterko lurretan egon arren, elizaz Lekeitio da. Aita Amorotoko Castillo baserrikoa zuen eta ama Gizaburuagakoa. 6 arrebaren ostean jaiotako semea da. Umetan Gardatako eskolara joan zen. Igeltseroa izan zen lanbidez. Gaztetan 12 urtez, 25gaz hasita, nabegatzen aritu zen merkantzia-ontzietan mundu guztian zehar: petrolioa, mineralak eta frutak (platanoa batez ere) garraiatzen zituzten. Kantuzalea izatez, sasoi bateko kanta, bertso zein ipuinak kantatu eta kontatu zizkigun. Ezkondu ostean Lekeitio bizi izan zen 80ko hamarkada hasieran bere emaztearen etxera, Amotorotoko Telleria baserrira, joan zen arte.

Sabin Gabiola Plaza (1918-2018)



Amorotoko Odiaga auzoko Etxebarrin jaio, hazi eta bizi izandakoa. Aita bertakoa izan zuen eta ama mendexarra. 18 urte zituela, gerratean, zapadoreen batailoira joan zen boluntario. Santoñan atxilotu ostean, nazionalen alderdira eramán zuten: Logroño, Bilbon, Teruelen, Caceresen... ibili zen. Gazterik hasi zen baserriko beharretan eta horri buruzko hainbat kontu kontatu zizkigun gerrako kontuekin batera.

AMT-001 Hizlari ezezaguna

Benita Lauzirika Lauzirika *Bene* (1931)



1931. urtean jaio zen Odiaga auzoko Urgozoaga baserrian. Gurasoak Ugaran auzokoak ziren izatez, lehengusuak, anaia biren seme-alabak. Alaba bakarra izan zen, neba umetan hil zen eta. Amorotoko eskolan ibili zen 7 urtetatik 14 urtera arte. Umetatik baserriko lanetan aritutakoa da: sagardogintzan, esnea eta ikatza Lekeitiora eraman eta saltzen, karea zein ikatza egiten... 1959. urtean Bilbora joan zen eta. Amorotora joateko gida-baimena derrigorra zela-eta, karneta atera zuen; emakume aitzindaria izan zen bera. Ondo gogoan dauzka garai bateko kontuak: euskaraz egiteagatik jasotako zigorrak, estraperloa, ermandadearen kontuak, ohiturak...

Santiago Onaindia Baseta (1909-1996)



Amoroton jaio zen 1909an, Ugaran auzoko Oleta auzunean. Larrean egin zituen lehen eliz ikasketak. Markinan, Gasteizen eta Begoñan ikasketak osatu ondoren, 1934an apaiztu zen. Fraide karmeldarra eta euskal idazlea. Euskaltzain ohorezko (1979) eta 1991z geroztik EIZIEko ohorezko bazkide ere izan zen.

Carlos Onaindia Laka (1946)



Elexalde auzoko Goitxibeko baserrian jaio ziren 11 neba-arreba, aitaren jaiotetxean; ama Ikadi baserrikoa zen. 8 hilabete zituela osabarenera joan zen bizitzera eta 13 urte bete arte egon zen bertan, Belakola baserrira morroi joan arte. Eskolara gutxi joan zen. Morroi garaian Lekeitioko portuan ere aritu zen gatza eta ikatza zekarten itsasontziak deskargatzen. Aitagaz ikatza egiten zuen Lekeition saltzeko. Herriko domeketako soinu-jotzailea izan zen 5 urtez. 1964an Australiara joan ziren bi anaia azukre-kanaberak ebakiten, gerora tabakotan eta basoko lanetan ere aritu ziren. Bere jaiotetxearen ondoan dagoen Iturrangoikoa baserrira ezkondu zen. Carlos batez ere basoko lanetan aritu da, gustuko lana hori izan du eta pasioz kontaktzen ditu lanbide horren kontuak. Urte askoan herriko sakristaua izan da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Abadeei agurra militarren pare

- **Hizlaria(k):** Gabiola Plaza, Sabin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMT-002/006
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:11:31. **Bukatu**: 00:14:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena**: Neskak eta mutilak bereizita ibiltzen ziren eskolan. Abadeak agurtu egin behar izaten ziren makurtuta, militarren pare. Eguerdiko hamabietan errezatu egin behar izaten zuten. Eskola baino garrantzitsuagoa zen dotrina.

Transkripzioa

- Mutilek mutiletara edo...? Eskolan.
- Ez, bai. Mutilek mutiletara, ta neskak nesketara egoten giñen, hori bai, Bai, bai. Ta ordun.... On (orain) abadeik be ez dago Amoroton ta, andrazko batek emoten dau. Atzo be, andrazko batek emondako mezie entzun gendun.
- A, bai?
- Mojie edo. Ta abadik, kristo lakoxe abadik, morroskuk egoten zin, ba, bueno... Ta abadik ordun saludau egin biher izeten zin /einbizitezin/ gerra denporan, ha zera, militarrek lantxerik. Abadik saludau, saludetan zin ordun.
- Zelan ?
- Bai, eskuaz einde!
- Eta, makurtu ta...?
- Bai. Bai. Ta hamabixek jotzen ebenien /jotebenin/ be errezuek. Hamabixek jotzen ebenien hamabixetako errezue. Ta hemen bat, izen zan, horixe. Paki, hemengu da Paki. Ez dakit! egon zara zu Pakiaz. Ba hangoxe etxeku da Paki. Bueno, ixetez Goixoku... horkue, baia horraxez ezkontute dago. Ta gizona be denpori da hil jakola. Gizona, gizona be, hiru bat urte edo ixango die, bai...
- Orduen, hori abadieri ta errespetue...
- Bueno, abadiai, bai hoixe!
- Baina, eskolan eukitzen zenduen ala abadie?
- Eskolara be etorri sarri egitten zan. Baiña ordun, eskoli baiño gehixago be dana zan dotreiñi edo zera zan, ikasi barik, ikasten zana, dana dotreiñi ta hortakoixe zera ikesi biher izaten zan ordun. Bai.
- Bai, zer zan inportantiaue eskolie baiño?
- Eskoli baiño, inportantiaue izaten zan, ba... Ordun, dana haxe zan ta. Bai.
- Eta eskolan, maisue edo maistrie edo?
- Maisue eukitzen gendun guk. Mutilek maisue eukitzen gendun. Ta maistrik ordun, neskak, bai. Neskak maistri. Ta maistrien eskoli zan hemendiko aldin, [horixe] goiezela, berton entradan zan.
- Eta nungotarrak eurek?
- Nungotarrak, lantzien leku batekuk egoten zin. Bai, lantzien leku batekuk.
- Baina euskaldunek?
- Euskaldunek gehixenin; baiña iñoz bai, "kastillanuk" be egon zin iñoz.

2. Euskara

2.1. Gerra garaian ikasi zuen erdaraz

- **Hizlaria(k)**: Gabiola Plaza, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea

- **Erref:** AMT-002/007
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:15:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Bere amak esaten zuen erdaraz bai eta ez bakarrik ikasi zuela. Sabinekin gerra garaian ikasi zuen gaztelera apurra.

Transkripzioa

- Kastillanue... Hori beste gauza bat. Nik erderaz... Nire amak esaten eban ze erdera [berak ekixela] "si" ta "no", ta eurek noz esan biher daben, nun kolokau be ez eurek, esaten eban. Ta pentsau hortik ze ikesiko naban nik! Ta nik gerra denporan ikesi naban nik ikesi naban apurre.

- A bai?

- Bai, gerra denporan. Hortxe gerran nebilela. Ta hemen enjeneralien hemen Gipuzku parteko lagunak euki nittuzen asko, baiña nahixao izeten naban erdera ikesteko balego... erdaldunak balegoz nahixa izeten naban, e! Hori eukitten naban, neure buru zaharrin eukitten naban hori. Bai.

3. Politika

3.1. Zapadoreetan izena emanda boluntario

- **Hizlaria(k):** Gabiola Plaza, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref:** AMT-002/010
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:19:23. **Bukatu:** 00:21:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gernika bonbardatu zutenean, hegazkinak ikusi zituzten. Zapadoreetan boluntario eman zuen izena. Gauez lan egin eta egunez lo egiten zuten. Hamar pezeta ordaintzen zioten eguneko. Tabakoa ere ematen zieten.

Transkripzioa

- Gerrie urten zanekoa?

- Gerrie urten zaneque, ba, Gernika bonbardeau ebenien be hementxe gengoan gu. Ordun be gu mutikuk ta. Hor ziherrantzien hiru abioe agertzen zin hortik honutz ta hamen ziherrantzien, bueno, abioie ta. Gero, barritz, gero akabo. Hor ziherrantzien giñanin, akabo barritz. Bueno, bueno. Zapadorietan edo nun-nun apuntau biher. Ze guk, sartu zakun erropa batzuk ta, [genduzen] erropak ta, zakun sartu ta, han jun giñan gu aurretik. Ta gero, ba, nunun apuntau bihar ta Zapadorietan apuntau giñen. Gabaz egitten gendun biharra biharra, ta egunez lo egitten zan apurre, egunez.

- Ta zer dala ta juañen, zer dala eta dezididu zendun Zapadorietara juatie?

- Zer dala eta, ba, hor ziherrantzien [giñan gu] hor aurrin, baiña gu... guaz jun ziñak be, gure paltarik ez eukien harek be. Ta guk be, jango bagendun, irabazi ein biher gendun pixkat. Ta hamar pezeta pagetan euskuen.

- Hamar pezeta?

- Hamar pezeta!

- Ze, astie edo hillie edo...?

- Egune, egunien hamar pezeta! Ta zera be bai, fumetako be raziñoie be. Nik ontxe fumau dot... On be ba... hori bizixuori badauket. On be goxin "Ducados" bat, zigarro bat, goxin armosautekun beti. Han tekamanan dauket [...]. Baiña ordun pakete bat inguru lauskitzen gendun, e.

- A bai?

- Bai! Enda, gero, gerratik etorritte be bai. Errazionamentue altxaten gendun, ta tabako, ta puru zaharra ta...

3.2. Espiatzat hartuta, preso

- **Hizlaria(k)**: Gabiola Plaza, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMT-002/016
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:33:19. **Bukatu**: 00:35:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Hamazortzi urterekin hasi zen babeslekuak eta trintxerak egiten. Espiak zirelakoan, kartzelaratu egin zituzten etxetik gertuan. Anekdotak bat kontatzen du.

Transkripzioa

- Ta lehelengo-lehelengo, hemen, trintxerie [ein eben] hor be, zerien. Ta, ba, hamazortzi urtegaz, zertu giñuezan. Ba hamazortzi urtegaz sartu giñan ta trintxeragiñera, ta deittu oskuen horra. Ta hor mendi batera jun giñen ta...

-Aztarrikara edo?

- Errefujixuk eitten ta zerak eitten. Ta han datoz zerak... zelan esaten jakuen ordun? Han datoz zein da ispixak giñela-ta hartu giñuezan. Ta Astobitxa esaten otsen /esatotsen/ Berrittuko kuarto zahar baten egon giñan. Lehenengo kartzelie hantxe ein neban nik. Gero, ba, lantzien leku baten, gero. Baiña, lehenengo kartzelie hortxe.

- Ispixak ziñielako?

- Ispixak giñela ta hartu giñuezan. Bai, ba, ordun, argixekin zeñak einde, dana zertzen eben. Hemen ibili zan jaleue! Markiñan be, Gaitan be, hemen zereko batek hartu ta Ubillako presan be lepun pasau ebela esaten eben honutz. Ta gero hor ibili zan, sabairik sabai, ta lantzien leku baten ezkutaute. Ta hemen, koban be eon zan. Koba entzutie eukiko dozu hori, Koba famaue, on proban-ta dabil. Horren aitxe neure kintxu zan. Ta han be, ba, koban ezkutaue ein biher [nunun]. Kobie zan etxin aurrin kobie. Ta egonda nao ni han. Ta euki eben Gaitan danentzako [sala] zatixe sartute koban. Ezkutaue ein biher nun o nun. [Sala] zatixe sartute egon zan. Bai, ta hantxe euki eben /eukiben/. Bai. Ta on gora aldeta dao. Handik alde ta behien dauko, behien, Aulestin, behien dauko etxie eginda. Ta hantxe bizi da. Baiña... Ta alaba bat dauko harek.

3.3. Nazionalen dominak eta koñaka

- **Hizlaria(k)**: Gabiola Plaza, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: AMT-002/022

- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:54:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Nazionalekin ibili behar izan zuenean, dominak erabili behar izan zituen. Bota ere egiten zituen. Herri bat hartutakoan, koñaka ematen zieten.

Transkripzioa

- Ez zenduen ibiltzen holan edo zintarik edo medallarik edo nazionalakaz ibili ziñenien? nazionalan bandokoa ziñela erakusten ebana?
- Bai, medallak eta zerak eukitten genduzan, bai. Horrek ebalten genduzan. Bittartie zanien jaurti be bai lantzien leku baten zihher ta... bueno!
- Eta "Pena de muerte"ak eta holan egon zien?
- E?
- "Pena de muerte"ak eta?
- Bai, egon zin horrek be. Horrek be bai, "Pena de muerte"ak eta bai. Hori esaten hasi naz... Franco, ba, gure ugezaba... Franco zan. Franco. Ta gero kantetan gendun, ba... hori: "entre Franco y..." zelan zan ha bestie? " Hemos [...] Norte y..." ez dakit zelakuk be, on ahaztuta daukadaz nik eta, baiña kantetan genduzan.
- A bai? Eta herri bat edo hartzen zan bakotxien, zelebren?
- Herri bat... saltaparapetos-ta emoten euskuen ordun. Haxe franku emoten euskuen guri.
- Zer?
- Saltaparapetosa esaten geuntson zerari: koñaka. Berotzeko ha emoten eben "por vencer", ta... Atakien-ta morukin-ta nahastien ibiltzen giñan ta.
- Ya, ya, horren zelebrazioa.

4. Familia eta harremanak

4.1. Abereen ermandadea

- **Hizlaria(k):** Gabiola Plaza, Sabin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref:** AMT-002/012
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:23:50. **Bukatu:** 00:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Kofradiak eta ermandadeak zeuden. Abereena eta pertsonena (botikak eskuratzeko) izaten ziren. Zela funtzionatzen zuten kontatzen du. Okela denen artean banatzen zuten. Apaizari ordaindu egiten zitzaion, soldata izan zezan.

Transkripzioa

- Kofradixen gauza asko eitten zien lehen.
- Bai. Ta gero, ganaue be bai, ganau ermandadak-eta ordun. On danak gastau die. Ganau ermandadak eta ordun gauza asko zan. Ta personen ermandadi be egon zan, e! Nire aitxek esaten eban /esateban/ egon zala. Ta hor goiko, zer bateko, baserri bateko, zerak, andriek, zera, alimentue zertzeko botikak hartzen zittula ta harexegaittik apurtu zala, esaten eban

aitxe zanak.

- Pertsonan ermandadie?

- Bai, personana egon zan ermandadie, botikak-eta, egon zan, ermandadie egon zan.

- Ta ganauenak zelan funtzionetan eban?

- Ganauena, barritz... ganauena, ba... Ganauetan asko galtzen zan. Ta bai, ba, ganau... dana... ermandade itzela egon zan hemen. Zabal! Jangoikuk daki ze lekuraiño, ze Markiñakuk be egon zin-ta hemengo ermandadan.

- Ta nor ibiltzen zan listeru edo?

- Ordun, kabuek ta, ba, zera, kabuk lantzien batzuk ixentau ta kabuk egoten zin. Ta gero, ba, zera, ofiziniesti edo pixka bat eskolatxue eukana bat. Ta hamen lehelengo bat egon zan aurretik Mateo esaten eutsen bat, ta gero ba Telleixe... neure koñetue, Tellerixekue. Ta holantxik beste lekutan be, Lekitxon-ta be, danin holantxik ermandadak.

- Ta tranparik ez eban eitten jentiek?

- Bai, eingo... eingo eben tranpak. Bai eingo zin tranpak, bai segurua.

- Ze ganadue hil jakola edo gaixotu edo...

- A! Bai, bai.

- Ta gero zer kobretan zan zeozer pasau ezkeru? Kobrau eitten zan ermandadetik edo?

- Bai, klaro kobretan zana! Ta okeli be aprobetxetako modukue bazan, okeli be errepartidu egitten zan.

- A, bai?

- Bai, okeli errepartidu ta [ibili]. Kapazuekin etorri... dana jentie, ermandadekuk danak, etoritte hemen egoten zin ta, ba, okelie eruten eben. Ta gero handixerik, proporziñoien, handixerik pagau.

- Noreri emoten jakon okelie, ermandadekoari...?

- Ermandadekuai, bai.

- ... eta noreri gehixago?

- Ermandadekuai bakarrik, bai, bai, bai, bertako... soziuai.

- Eta beterinarioari edo?

- Beterinarixue... bai, ekarri ein biher izeten zan beterinarixue. Bai, beterinarixuaz zertu ein biher ixaten zan. Baiña beterinarixuai emon ez dakit... ez dakit /eztait/ ba zeozer borondatetxue igul emongo jakon, baiña ez dakit ba, ez dakit zelan ixaten zan hori.

- Eta abadieri?

- E?

- Abadieri?

- Abadiari e... Abadiak ba ez ei eben irabazten bihar beste ta "Culto y Clero" ta... hori geure denporan, Horrek pagetan be denporadan egon giñan.

- "Culto y clero"?

- Gu umiek... E?

- Zer da hori "Culto y Clero"?

- "Culto y Clero" esaten jakon abadiari pagetan jakuena.

- Baiña ze pagetan zan edo...? Esplikaizu.

- Zer? Ba, hainbeste diru eta hantxe zeozer... abadiari pagau, ez ebala biher beste irabazten ta. Bai.

- Ba eliziek be emongo eutson dirue.

- E?

- Elizatik be hartuko eban dirue.

- Bai ba! Baiña ez ebala ba biher dan beste... Ha ez zala sufiziente esaten eben behintzet eta ez zan ixengo. Eta gero, hoixe, "Culto y clero" ipini eben ta handixek pagetan zan zeozer. Gauza handixe ez zan izengo, baiña...

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Trintxerak egiten kandelen argipean (AMT-002/015)

Kandelak erabiltzen zituzten trintxerak egiterakoan argia izateko. Aitzurra eta pikatxoiarekin ibiltzen ziren. Galdakaon denboraldia egin zuten. Eskolak zein babeslekua bonbardatu zituzten. Bonbak botatzen zituztenean, ahoan zer bait izatea komeni izaten zen.

2. Santoñan preso (AMT-002/017)

Bizkargin trintxerak egiten ari zireneko pasadizoa kontatzen du. Trintxerak egiten aritu zenean, ez zuen armarik izan. Santoñan nazionalak harrapatu zituzten eta Laredora eraman zituzten. Makarroiak zer ziren han ikasi zuen. Karrantzan zeudeneko pasadizo bat kontatzen du.

3. Preso alde batetik bestera (AMT-002/018)

Laredon kanpaleku baten eduki zituzten nazionalak. Handik Logroñora eraman zituzten, gero Bilbora, Teruelera eta Caceresera. Handik, berriz, Ciudad Realera eraman zituzten. Han zeudela bukatu zen gerra. Fronte bien bitartean, ortu handiak zeuden eta handik elikatzen ziren. Kontrarioekin karta-jokuan ibiltzen ziren.

4. Badajozeko triskantzak (AMT-002/019)

Badajozen zegoela ezagutu zuen tankea zer zen. Han ikusi zuen gizon bati begi biak nola atera zizkieten. Triskantza handiak ikusi zituen han.

5. Gerra garaiko jantziak eta hornigaiak (AMT-002/020)

Manta bat hartuta ibiltzen ziren. Jantziak eta oinetakoak eskasak izaten zituzten. Fusila eta esku-bonbak izaten zituzten aldean. Anekdota bat kontatzen du. Gerra bukatu zenean, instrukzioa eman zieten nazionalak.

6. Gerran hildako amorotoarrak (AMT-002/021)

Amorotoar batzuk hil ziren gerran. Sei-zazpi kontatu ditu. Mañariko batzuei gertatukoa kontatzen du. Gipuzkoarrak asko ibili ziren berarekin. Erdaldunekin ere konpontzen ziren, nahiz eta haiek euskaraz ez egiteko esaten zieten.

7. Hitzaldiak eta aitortzak egiten herriz herri (AMT-004/002)

Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa ondo ezagutzen ditu. Hitzaldiak eta aitortzak egiten ibiltzen zen herriz herri eta auzoz auzo. Larrean bizi izan da 1951tik aurrera.

8. Jolas, kantu eta ipuinei buruzko liburua (AMT-004/005)

"Jolasketa" izeneko liburua zergatik idatzi zuen kontatzen du. Karmel aldizkarian idazten zuen. Lehengo liburua "Onbidea" izeneko atera zuen, Santa Teresarena. "Jolasketa" liburuan ipuin, jolas, irakurgai eta kanta asko batu zituen. Bizkaieraz eta gipuzkeraz idatzi zituen.

9. Eskola publikoetako irakasleentzat materiala (AMT-004/006)

Eskola publikoetako irakasleek materiala behar zuten euskaltasuna transmititzeko eta horregatik idatzi zuen "Jolasketa" liburua.

10. Gaztaroko erreferente euskaltzaleak (AMT-004/007)

Erreferentziatzeko idazleak. Larrea auzoa lehen zelakoa zen kontatzen du. Karmeldarretan ikasi zuen berak. Maisu onak eta euskaltzaleak izan zituela dio, eta haiekin piztu zitzaion euskaltzaletasuna. Azkueren eta Kirikiñoren liburuak irakurri zituen.

11. Espetxean ingelesa ikasten (AMT-004/008)

Espetxean ikasi zituen hainbat hizkuntza. Ingelesarekin hasi zen. "Eguneroko meza" liburua argitaratu zuen, gazteleratik itzulita, (Jaime) Kerexetarekin batera.

12. Espetxean frantsesa eta alemana ikasten (AMT-004/009)

Frantsesez zekien kartzelako kide batekin ikasi zuen frantsesa, eta berdin ingelesez ere beste kide batekin. Lord Byronen "El Corsario" euskaratu zuen. Alemanez ere ikasi zuen han.

13. Julian Besteirorekin kartzelan (AMT-004/010)

Julian Besteirorekin egon zen kartzelan. Alemanezko zalantzak, hari galdetzen zizkieten. Besteirok Madrid entregatu omen zion Francori, halabeharrez. Hari buruzkoak kontatzen ditu.

14. Liburu klasikoen itzulpenak (AMT-004/011)

Ikasketa guztiak latinez egin zituen, hamalau urtez. Grekoa ere ikasi zuen bertan, eta zertxobait hebreeraz ere bai. Erromako eta Greziako klasikoen itzulpenak egin zituen, bere eta Zaitegi eta Ibiñagabeitiaren gogoz. Gaizka Barandiaranek Homeroren 'Iliada' liburua itzuli zuen. Homeroren Odisea itzuli zuen Santik. Euskara jakinda, alemana eta greziera errazak omen dira.

15. Hizkuntza askotatik itzulpenak (AMT-004/012)

Danteren "Divina Comedia" gehiago kostatu zitzaion itzultzea. Lord Byron (ingelesetik) eta Espriuren bertsoen (katalanetik) itzulpenak ere egin zituen. Rosalia de Castroren etxea zelakoa zen azaltzen du. Rosalia de Castroren bertsoak (galizieratik) itzultzeko ditu.

16. Fraideen egunerokoa goizez (AMT-004/014)

Fraideen bizitza zelakoa den azaltzen du. Goizetik gaueraino eguna zelan antolatzen duen kontatzen du. Errezoak, otoitzak, ortua... Lau oilanda eta oilar bat ditu.

17. Fraideen egunerokoa arratsaldean (AMT-004/015)

Itzulpena egiten ari da, Santa Teresaren bizitzari buruzkoa. Bazkalostean, solasaldia izaten dute eta ondoren siesta egiten dute. Errezoak, otoitzak... izaten dituzte.

18. Olerti aldizkariari buruzkoak (AMT-004/016)

Olerti aldizkariari buruzkoak kontatzen ditu, baita kartzelatik irten orduko ibilerak ere. Kantabrian zegoela, Karmel aldizkaria argitaratzen hasi zen. "Mila euskal olerki eder" liburua argitaratua zuen baina Euskal Herrian olerki aldizkaria falta zela iruditu zitzaion. 1959an argitaratu zuen Olerti aldizkaria, 1970era arte.

19. Olerti aldizkariari debekua (AMT-004/017)

Olerti aldizkaria ateratzeko baimenik ez zioten inoiz eman izan baina argitaratzen jarraitu zuen, harik eta 1970ean Madrildik gehiago ez argitaratzeko debekua jaso zuen arte. Euskal Herriko olerkari onenek idazten zutela bertan dio.

20. Frankismoaren eragina euskaltzaleengan (AMT-004/018)

Francok euskarazaleak eta idazleak zigortu zituela dio, gizartean kalterik gehien egiten dutelako. Jaurilaritzako agintari asko fraide izandakoak edo fraideekin ikasitakoak direla dio.

21. Eragozpenik ez euskaraz aritzeko (AMT-004/019)

Gaur errazagoa da ikastea. Kartzelan ez zuen eragozpenik izan ikasteko. Frankismoan jesuitak eta eskolapioak, oso zigortuak izan ziren; frantziskotarrak, ez hainbeste, ezta karmeldarrak ere. Euskararen alde aritzeko ez du eragozpenik izan.

22. Osasunari buruzko liburua (AMT-004/020)

Ilea mozterako garaian, ilargiak eragin handia duela kontatu izan diote, baita arbolak inausterakoan ere. "Euskaldunak eta osasuna" liburuari buruzkoak kontatzen ditu.

23. Bizkaierari indarra emateko lanean (AMT-004/021)

Euskarazaintza. Bizkaierari indarra emateko lanean aritzen da. Bizkaiko idazleak aipatzen ditu. Txilardegi onenatarikoa iruditzen zaio. Amatiño ere aipatzen du.

24. Bihotzerrearentzako konponbidea (AMT-004/022)

Bihotzerrearentzako erremedioa aipatzen du. Janarien arteko nahasteak eragiten duela dio. Emakumeek mantzanilla hartzen omen dute. Medikuntza guztia belarretatik datorrela dio. Baserritarrek eurek sendatzen omen zituzten beraien gaitzak. Gurasoek belarrak lehortuta izaten omen zituzten, erabiltzeko.

25. Bizkaiera, denean antzekoa (AMT-004/023)

Bizkaierako aldaerak antzekoak direla dio, Ondarroan eta Bermeon izan ezik. Lekuan lekuko hizkera irakatsi behar dela uste du.

26. Bizkaieraren hainbat aldaera eztabaidagai (AMT-004/025)

Azkue maisu handia izan da beretzat. Azkueren garaian, baita Orixek ere, "dau" eta "deu" aldaerak ikertu zituzten. Bi aldaerei buruz berba egiten du.

27. Azkue eta Aitzol eredu (AMT-004/026)

"Be" eta "bere" aldaerei buruzkoak aipatzen ditu. Azkueren tradizioari jarraitu izan zaio. Aitzolen ereduari jarraitu izan dio, "y" hizkiaren ordez, "j" erabiliz.

28. Bizkaiera eta batua (AMT-004/027)

Bizkaiera eta batuaren artean ez du alde handirik nabaritzen. Berbak jaten dituzten kasuetan, elkar ulertzea zailagoa izaten dela dio baina gainontzean, antzerakoak direla iruditzen zaio. Bakoitzak berea egitearen aldekoa da.

29. Bertso txapelketa batean epaile (AMT-004/029)

Bertso txapelketetara joaten zen. Areatzan (Arenal) izan zen lehenengo txapelketa Bizkaian eta epaile jardun zuen. Tranpak egin zituztela esan zieten. Enbeita zela onena dio berak. "Gure bertsolariak" izeneko liburua argitaratu zuen.

30. "Zintzo" ezizenaren jatorria (AMT-005/002)

Angel Bermeosolo Arrate. "Zintzo" ezizenez ezagutzen dute denek. Ezizena nondik datorkion kontatzen du. Erdiko semeari ere "Zintzo" esaten diote.

31. Ispasterko Zatikatxu auzoan jaioa (AMT-005/004)

Ispasterko Zatika auzoko Zatikatxu baserrian jaio zen. Ispasterko auzoak. Gertutasunagatik, elizaz Lekeitiokoak ziren beraiek. Aita Amorotokoa zuen eta ama Gizaburuagakoa. Gurasoak Ereñon bizi izan ziren aurretik eta hiru alaba zituztela joan ziren Zatikara bizitzera. Angel senideetan gazteena da.

32. Bermeosolo abizenaren jatorria; Castillo baserria (AMT-005/005)

Bermeosolo abizenaren jatorria. 1700ean Amoroton Bermeosolo bakarrra zegoen eta Bermeosolo baserrikoa zen. Handik hasi ziren gero adarrak zabaltzen, baina euren jatorria Amoroton dagoela dio. Castillo baserriaren historia. Aita eta anaiak Ameriketara joan ziren. Aita itzuli egin zen, baina hiru anaia han geratu ziren bizitzen. Hango senideekin harremana.

33. Soldadutzatik libre, gurasoak zaintzearen (AMT-005/008)

Gurasoekin bizi izan zen Zatican. Bera zen senideetan gazteena eta soldadutzatik libratu zen, guraso nagusiak zituelako. Urtero demostratu behar izaten zen, gurasoak zaintzen ari zela. 25 urterekin, tramite hori bukatu zenean, itsasora joan zen lanera.

34. 12 urtez itsasoan, merkantzia-ontzietan lanean (AMT-005/009)

25 urterekin itsasoan hasi zen lanean, merkantzia-ontzi norvegiarretan. Petrolio-ontziak eta frutarekin lan egiten zutenak banatu egin ziren eta bera fruta garraiatzen zutenetan geratu zen. Platanoak garraiatzen zituzten gehienbat. Mundu osoan zehar nabigatu zuen. Ordu-aldaketak. Petrolio-ontzietan ibili zenean hilabete egiten zuten lurrik ukitu gabe. Egindako bidaien inguruko kontuak.

35. Konpainia norvegiarra, tripulazioa euskalduna, bandera liberiarra (AMT-005/010)

Merkantzia-ontzien konpainia norvegiarra zen, baina bandera aldatutako barkuak zirela azaltzen du: beraiek Liberiako banderarekin ibiltzen ziren, merkeago ateratzen zitzaielako (zerga gutxiago ordaindu behar zelako). Tripulazioko kideak euskaldunak eta galiziarrek izaten ziren normalean.

36. Emaztea ere merkantzia-ontzian bidaiatzen I (AMT-005/011)

Merkantzia-ontzietan gehienak gizonezkoak izaten ziren. Gehienez hiru emakumezko joan zitezkeen. Berak "frigorista" bezala lanean ibili zenean, emaztea eramateko baimena izan zuen eta birritan joan zen emaztea barkuan. Kapitainak bautizatu egin omen zuen emaztea eta diploma eman.

37. Emaztea ere merkantzia-ontzian bidaiatzen II (AMT-005/013)

Emaztea merkantzia-ontzian joan zen beraiekin eta kapitainak diploma bat eman zion, ekuatorea zeharkatu zuelako. 1976ko diploma erakusten du.

38. Suezko kanaletik ezin pasa eta Afrika osoari buelta (AMT-005/014)

Sasoi batean petrolio-ontzian ibili zen. Persiatik Mediterraneora joan behar izaten ziren, Suezko kanala zeharkatuta. 1970 inguruan, gerra baten ondorioz, ezin izan ziren pasa Suezko kanaletik eta Afrika osoari buelta eman behar izan zioten. Bestelako gerrarik ez zitzaien tokatu. Euren pasaportearekin nazio gehienetan sartzeko aukera zuten, Errusian eta beste gutxi batzuetan salbu.

39. Atzerrian komunikatzeko arazoak; Japoniara bidaiak (AMT-005/015)

Merkantzia-ontziak konpainia norvegiar batenak ziren, baina bai kapitaina eta baita tripulazioa ere euskalduna edo galiziarra. Atzerrian komunikatzeko arazoak. Japoniara joan ziren batean taxian sartu eta euren barkua aurkitu ezinik ibili ziren. Galiziarrek adarra jotzen zieten, euskaldunek japoniarren antzera hitz egiten zutela esanda.

40. Bidaia gehien Erdialdeko Amerikara, platanotara (AMT-005/016)

Japonian Tokiora joaten ziren asko. Garai hartan ez zegoen kotxeak garraiatzeko barkurik eta beraiek eramaten zituzten merkantzia-ontzian Japoniatik Ameriketara. Erdialdeko Amerikara egin zuen bidaia gehien, platanotara. Bonita platan markak barkuak ere bazituen. Sagarrak, patatak eta beste gai batzuk ere garraiatzen zituzten.

41. Itsasoko lana: urtebete etxera itzuli gabe (AMT-005/017)

1968an hasi zen merkantzia-ontzietan lanean. Hamar hilabetetik hamahirura bitartekoak izaten ziren kontratuak. 1975ean ezkondu zen eta ezkondu ostean ere urtebete pasa egin zuen etxera etorri gabe. Ustez egindako lanagatik kotizatzen zuten arren, erretiroa hartzeko garaian lan egindako urteen erdiak bakarrik azaltzen omen zitzaizkion.

42. Japoniara bidean denboraleak harrapatu zituenekoa (AMT-005/018)

Itsasoan bizi izandako denboraleak. Behin Japoniara zihoazela barkuari sekulako astindua eman zion olatu batek eta ura makinetaraino sartu zitzaien. Orduan bizitakoak. Hong Kongen konpondu zieten barkua.

43. Itsasgizona izateko Hornos lurmuturretik pasa behar (AMT-005/019)

Itsasgizona zarela esateko Hornos lurmuturra pasa behar dela esaten omen dute. Bera ez da inoiz pasa handik; Magallaes itsasartetik bai. Hiru ozeanok bat egiten dute Hornosen eta izugarritzko denboraleak sortzen omen dira. Magallaes eta Juan Sebastian Elkanori buruz historiak dioena eta esaten dena.

44. Merkantzia-ontzian Ameriketara egindako bidaiak (AMT-005/020)

Panamako kanaletik pasatzen ziren asko, baina Magallaes itsasartetik ere bai batzuetan. Gogoan du egin zuen lehen bidaiari minerala eramane zutela Argentinara. Garraiatzen zutenaren arabera eta epe batez ibilbide jakinak egiten zituzten. Egindako bidaietan ikusi dituenak: dorre bikiak eraikitzen, Empire State, piramideak...

45. Barkuko janzkera (AMT-005/021)

Barkuan makinetan bero egoten zen eta normalean fraka motzetan eta gainekorik gabe ibiltzen zen. Segurtasun-oinetakoak erabiltzen zituzten, puntan budina dutenak. Erdialdeko Amerikara egiten zituztenez bidaiari gehien, bero izaten zuten normalean.

46. Europa Iparraldean itsasoa izoztuta (AMT-005/022)

Behin Danimarkatik irten eta Filadelfiara joateko, Mantxako kanaletik pasa beharrean, iparralderagotik abiatu ziren. Itsasoa izoztuta zegoen eta barkua gelditu egin zen. Egunak behar izan zituzten aurrera egiteko.

47. Barkuaren zarata (AMT-005/023)

Barkuaren makinetan beroa eta zarata. Zaratak ez zion molestatzeko lo egiteko, zarata jarraia izaten delako; motorra isildutakoan orduantxe konturatu. Bestelako zaratak izaten dira txarrak barkuan, esaterako, ate bat kolpeka badago.

48. Panamara bidaiak; eguzkia eta eltxoak (AMT-005/024)

Panamako lehorreratzearen inguruko azalpenak: itsasoaren mailaren gaineratik pasa behar, eskaileretan. Barku barruan, makinetan ez zuten hotzik izaten, baina kubiartan denetariko eguraldia jasan behar. Barkua txapazkoa zen eta eguzkiarekin asko berotzen zen. Panaman ekaitz tropikalekin barkua lurrunetan jartzen zen. Inoiz ez du eguzkitarako kremarik erabili. Eltxoentzako ere ez. Batzuek eltxoen helduekin beteta egoten ziren, baina berari ez zioten eragiten.

49. Ur irakina eta gatza sendagaitzat (AMT-005/026)

Amama-aititarik ez zuen ezagutu. Ez du gogoan amak sendabelarrik erabiltzen zuenik. Mantzanilla tripako minarentzat, zaldar-belarra. Ur irakina eta gatza erabiltzen ziren gauza askotarako.

50. Gardatako eskolan ibilia; maistra, Lekeitioko fraideak (AMT-005/027)

Gardatako eskolara joan zen umetan. Gogoan du mesedeetako fraideak joaten zitzaizkiela Lekeitiotik eta paper bat sinarazten zietela, eurekin fraide joateko. Maistra nafarra izan zuten: Laura Elberdi. Frankista ei zen. Dena gaztelaniaz ikasi zuten, euren artean euskaraz egin arren. "Cara al sol" abesten zuten goizero. Ordezko irakaslearekin gertatutakoa. 16-17 urterekin igeltsero lanetan hasi zenean ez zekien gaztelaniaz. Espainiako beste probintzia batzuetatik etorritako asko zegoen sasoi horretan.

51. Gardatako eskolan 60 neska-mutil maistra batekin (AMT-005/029)

Gardatako eskolan adin desberdinetako 60 neska-mutil inguru ibiltzen ziren, maistra bakarrarekin. Eskolak gela bat eta sukaldea ere bazituen. Liburu bakarra erabiltzen zuten.

52. Eskola materialik ez (AMT-005/031)

Eskolan liburu bakarra izaten zuten eta, idazteko, klariona eta arbela. Ekonomikoa zela eta ez zutela zaborrik sortzen dio.

53. Hileko lehen barikuan Lekeitiora konfesatzera (AMT-005/032)

Dotrina. Hileko lehenengo barikuan Lekeitiora joan behar izaten ziren konfesatzera. Abade batzuek galdera gehiago egiten zituzten eta inork ez zuen nahi izaten haiengana joatea. Gero igandean jauna hartzera, baraurik.

54. Konfesatokia; fraideen sermoiak (AMT-005/034)

Hileko lehenengo barikuan Lekeitioko eliza nagusira joaten ziren konfesatzera. Konfesatokian mutilak erditik barrura sartzen ziren eta neskak alboko leihoetatik konfesatzen ziren. "Ejerzizioak". Fraideek gogor gogor jarduten zuten sermoietan. Sexu-harremanetan "tranpa" egitea bekatu zela esaten zuten. Fraideetako bat bertsolaria omen zen.

55. Amarengandik jasotako koplak zaharrak (AMT-005/036)

Kanta zaharrak galdu egin dira asko. Amak kantatzen zituen maitasun koplak zahar batzuk kantatzen ditu.

56. Soinuaren lapurretaren inguruko bertso zaharrak (AMT-005/037)

Amorotoko bertso zahar batzuen inguruko azalpenak. Garai batean soinu-jotzaile bati soinua lapurtu omen zioten. Herriko bat jotzen zuten erruduntzat, bina azkenean aurkitu zuten benetako erruduna eta erruduntzat jotzen zutenak gertatu zenari buruzko bertsoak atera omen zituen.

57. Ardien inguruko bertso zaharrak (AMT-005/038)

Ardien inguruko bertso-zahar batzuen zati batzuk kantatzen ditu. Garai batean bertsolariak zeuden Amoroton.

58. Probalariei ateratako bertsoak (AMT-005/040)

Probalariei aterako bertso zaharrak. Bertso asko omen dira; baina gutxi batzuk kantatzen ditu.

59. Aita eta ama lehengusuak (AMT-007/002)

Gurasoak Ugaran auzokoak ziren jatorriz, lehengusuak, anaia biren seme-alabak. Aita Urgozoaga baserrian jaio zen. Ama amarik gabe gelditu zen umetan eta haren aita berriz ezkondu zen. Urgozoagako osaba (Beneren aitita) egin zen amaren tutore eta berarekin eraman zuen baserrira. Aita Ameriketara joan zen gaztetan eta handik itzuli zenean amarekin (lehengusinarekin) ezkondu zen.

60. Amak ez zekien irakurtzen (AMT-007/003)

Ama aitaren bigarren ezkontzako anai-arrebak zaintzen geratu behar izaten zen eta, ez zenez eskolara joaten, ez zuen ikasi irakurtzen. Aitak bazekien irakurtzen. Gurasoek abade egitea nahi zuten, baina 10 urte zituela anaia jaio zen eta, diru nahiko ez zutenez, baserrian geratu behar izan zen.

61. Umeen lanak: itaurrean egin eta galdara garbitu (AMT-007/004)

Bi neba-arreba izan ziren, baina neba umetan hil zen eta bakarrik geratu zen. Etxean lagundu egin behar umetatik. Eskolatik etxera joandakoan umeek bi lan izaten zituzten: edo itaurrean egin edo galdara garbitu. Esnea egositakoan galdara ipurdian itsasten zen eta gaitza izaten zen garbitzen.

62. Eskolara ezin joan, Gerra Zibila hasi zelako (AMT-007/005)

Eskolara ezin izan zen joan, Gerra Zibila hasi zelako. Gernika bonbardatu zutenean 6 urte egin berri zituen eta artean eskolara joateke zegoen inoiz. Bonbardaketaren aurretik ere mugimendu politiko eta sozial handia egon zen.

63. Amorotoko eskolan neskak eta mutilak aparte (AMT-007/006)

Zazpi urte egin eta gero hasi zen Amorotoko eskolan. Ez zegoen libururik. Karearekin idazten zuten tableroan eta arbelean eta dena hautsez beteta egoten zen. Eguenetan eskola garbitzen zuten denen artean. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Mutilak maisuarekin eta neskak maistrarekin.

64. Magisteritza egin nahi zuten neskak Bilbora (AMT-007/008)

Magisteritza egin nahi zuten neskak Bilbora joaten ziren moja teresiarren ikastetxera. Bere koinata, bera baino zaharragoa, izan omen zen hara joan zen lehenengoetakoa. Urte osoa pasatzen zuen Bilbon eta urtean behin itzultzen zen etxera, oporretan. Berari ere esan zioten hara joan beharko litzatekeela eta mentalizatu ere egin zen hara joateko, baina gurasoei pena eman zien alaba etxetik kanpora bidaltzeak eta azkenean herrian geratu zen.

65. Gaztelaniaz egin behar Amorotoko eskolan (AMT-007/009)

Amorotoko eskolako maistrak ez zekien euskaraz. Beraiek gaztelaniazko hitzak ikasi behar izaten zituzten, esaterako, komunera joateko baimena eskatzeko:

"¿Me permite usted salir?". Hori ikastea zaila zen beraientzat eta gogoan du lehenengo aldian, txizagurari ezin eutsita, irten egin zitzaiola. Adin desberdinetako 40 neska inguru ibiltzen ziren batera eskolan.

66. Euskara debekatuta eskolan; eraztunaren zigorra (AMT-007/010)

Euskara debekatuta zegoen Amоротoko eskolan. Euskaraz hitz egiten zuenari eraztun bat jartzen zioten eta egunaren amaieran eraztuna zuena eskolan geratu behar izaten zen, zigortuta. Behin, nahi gabe, hitzen bat esan zuen euskaraz eta eraztuna berari jarri zioten. Ilundu arte eduki zuten eskolan, baina gero maisu-maistrek etxera lagundu zioten. Gurasoak arduratuta zeuden alaba falta zelako; irakasleek azaldu zieten zergatik zigortu zuten eta gaztelaniaz ikasi behar zuela esan zieten gurasoei.

67. Amak Lekeitio ikasi zituen gaztelaniazko hitzak (AMT-007/011)

Amak ez zekien gaztelaniaz. Lekeitiora eramaten zuten esnea eguaztenetan, saltzeko. Orduan ez zegoen hozkailurik eta esnea egosi egiten zuen amak, gal ez zedin. Bezero batzuei egositako esnea eramaten zien. Orduan ikasi zituen amak "cocido" eta "crudo" hitzak. Esnearen neurria ontzi batekin hartzen zen.

68. Soldaduak baserrietara I: gosetuta (AMT-007/012)

Gernikako bonbardaketaren aurretik frontea Berriatuan egon zen. Bi aldeetako soldaduak joaten ziren baserrietara. Gose izaten ziren. Amak indaba platerkada jartzen zien, ze aldetakoak ziren begiratu gabe, eta gustura jaten zuten. Etxekoek indaba hondarrak jaten zituzten, ura gehitu eta zopak eginda. Soldaduak konfiantza gero eta handiagoa hartzen joan ziren eta gero eta sarriago joaten zitzaizkien.

69. Soldaduak baserrietara II: zorriz beteta (AMT-007/013)

Gerra sasoian baserrira joaten zitzaizkien soldaduek gero eta konfiantza handiagoa hartu zuten eta, azkenean, arropak garbitzeko ere eskatu zioten amari. Arropak zorriz beteta zituzten. Auzokoek putzuan garbitzen zituzten arropak eta ama ez zen ausartu soldaduen arropak han garbitzen, zorriak uretan bizirik geratuko zirelako. Horregatik, lixiba egin zuen soldaduen arropak garbitzeko. Lixiba nola egiten zuten.

70. Senideen arteko haserrea, gerraren eraginez (AMT-007/015)

Alde batekoen eta bestekoek arteko liskarrak gerran. Bere aurrekoek familia barruan izandako haserrearen jatorria azaltzen du. Senide bat gerran hil zenez, beste senidea gerrara joan ez zedin, dirua batu zuten. Hortik betirako haserrea sortu zitzaien.

71. Ezkutalekuak baserrietan (AMT-007/016)

Gerra sasoian baserri guztietan zeuden ezkutalekuak. Euren baserrian ere bai. Txahala ere han gordetzen zuten, bestela kendu egiten zuten eta.

72. Meza ostean, gizonak tabernara eta emakumeak etxera (AMT-007/017)

Etxean ganadua, txerria, oiloak, untxiak... izaten zituzten. Jateko, lan egin behar, goizeko seietan jaikita. Astegunean hamarretakoa egiten zen;

domeketan hamaiketakoa, hamarretan meza izaten zelako. Gizonak joaten ziren tabernara, hamaiketakoa egitera; emakumeak etxera. Tabernara ezkondu ostean sartu zen lehen aldiz.

73. San Martin egunean pontxea edatera herrira (AMT-007/018)

Herriko jaietan, San Martin egunean, uztailaren 4an, baserrietako familiak herrira joaten ziren pontxea edatera. Pontxea ura, azukrea eta koñaka edo ardoarekin egiten zen.

74. Baserriko bizimodua: jatekoa izatea helburu (AMT-007/019)

Baserriko bizimodua. Jatea helburu. Animalientzat jatekoa lurretik hartu behar. Eta, horretarako, lurrari ere jaten eman behar. Ira eta orbela ekartzen zuten basotik, simaurra egin eta lurrari botatzeko. Gero erein, norberarentzat jatekoa lortzeko.

75. Simaurra eta karea, lurrarentzat ongarriak (AMT-007/020)

Simaurra eta karea botatzen zitzaizkion lurrari, ongarri moduan. Simaurra nola egiten zuten. Karea ere etxean egiten zuten, auzolanean. Harria erreta egiten zen karea.

76. Ikatza nola egiten zuten (AMT-007/021)

Ikatza nola egiten zuten.

77. Txondorra zaintzen gauean (AMT-007/022)

Txondorra basoan egiten bazen, han geratu behar izaten zen norbait, zaintzen. Bera ere egonda dago gauez txondorra zaintzen, osabarekin batera; gurdiaren gainean egin zuen lo maindirearekin estalita. Berarentzat abentura izan zen.

78. Ikatza txondorretik ateratzea (AMT-007/023)

Ikatza eginda zegoela nola igartzen zen; usaina ere aldatu egiten zitzaion. Sarde-aitzurrarekin atera eta zabaldu egiten zen. Hoztu eta gero zakuetan sartzen zen.

79. Lekeition saltzen zuten ikatza (AMT-007/025)

Txondorraren erdian makila sartzen zenean, aitaren eginda sartzen zuten. Ikatza saldu egiten zuten. Astoari bi zakukada ikatz jarri eta Lekeitiora joaten ziren, saltzera. Sukaldeetarako behar izaten zen. Orduan ez zegoen berogailurik etxeetan.

80. Aititak lihoa ereiten zuen (AMT-007/026)

Berak ez du ezagutu, baina aititak lihoa ereiten zuen eta oraindik ere "Linobaso" deitzen diote sail hari. Jasotako lihoa Telleria baserrira eramaten omen zuen aititak, oihala egiteko.

81. Inguruetako kobazuloak (AMT-007/029)

Inguruetako kobazuloak.

82. Gerraostean txerria ezkutuan hil zuteneko pasadizoa (AMT-007/031)

Gerraostean debekatuta zegoen txerria hiltzea. Gogoan du behin goizaldera auzoko bat etorri zela txerria ezkutuan hiltzekotan. Labana sartu zion txerriari eta txerriak hanka egin zuen, odola zeriola. Txerria harrapatu eta eraman zuten etxera bueltan, baina odol gutxi zeukan, odolkiak egiteko. Odola hiltegi batean erosi behar izan zuten.

83. Txerrikiak nola kontserbatzen ziren (AMT-007/032)

Txerria hiltzen zenean, nola zatitzen zen: urdaia, pernila, txerri-hankak... Gatzun-askan jartzen ziren urdaia, pernila eta solomoa, kontserbatzeko. Gerora, potzuan garbitu, gatz kendu eta zintzilik jartzen ziren, piperra emanda, sikatzeko.

84. Txorizoak eta odolosteak nola egiten zituzten (AMT-007/033)

Odolosteak eta txorizoak eskuz egiten zituzten. Bakoitzari zer sartzen zioten. Hurritz-makilak erabiltzen zituzten hesteak garbitzeko.

85. Bi anaia bi ahizparekin ezkontuta (AMT-009/003)

Orain bizi den lekutik gertu jaio zen, Goitxibeko baserrian. Bi anaia bi ahizparekin ezkondu ziren. Inguruko baserrietako gehienak senideak direla aipatzen du. 11 anai-arrebatan erdi-erdikoa da bera. Gurasoak ere Amоротokoak ziren.

86. Osabarekin hazi zen; 13 urterekin Belakolara morroi (AMT-009/004)

Aitita-amamak ez zituen ezagutu. Zortzi hilabete betetzeko zegoela, osabarengana eraman zuten eta haren baserrian bizi izan zen 13 urtera arte. Gero, auzoko Belakola baserrira joan zen morroi eta lau urte egin zituen bertan.

87. 1964an anaia eta biak Australiara (AMT-009/005)

1964an, 17 urte zituela, bera eta anaia nagusiagoa Australiara joan ziren, kanaberek moztan lan egitera. Lehengusina eta beste herritar batzuk joanak ziren aurretik eta baita euren anaia nagusiago bat ere. Telefonoz jaso zuten abisua, biharamunean Hendaiara joateko. Tabernan zegoen telefono zentrala. Arropa apur batzuk hartuta abiatu ziren.

88. Australiara bidaia: Hendaiatik Genovara trenez (AMT-009/006)

Australiara bidaia. Hendaiatik Genovara trenez joan behar zuten. Amak bi koñak botila eman zizkien biderako. Inguruko mutil batzuk elkartu ziren trenean eta bidean "txispatu" egin ziren. Larri ibili ziren gero, okerreko bidea hartuta. Ozta-ozta iritsi ziren ordurako Genovara.

89. Australiara bidaia: Genovatik Brisbanera itsasontziz (AMT-009/007)

Australiara bidaia. Genovara iritsi zirenean, lagunak barkuan sartu ziren, baina beraiek kanpoan geratu ziren. Hizkuntza ez zuten ulertzen eta larritu egin ziren. Azkenean, beraiek ere sartu zituzten barkura. 33 egun egin zituzten

barkuan. Brisbanen egin zieten harrera: lehenbizi nahikoa jaten eman eta gero errugbi partida ikustera eraman zituzten. Harrera egin zienak beraiek baino hobeto egiten zuten gaztelaniaz. Arratsaldean trena hartu eta anaia zegoen lekura. Luzea egin zitzairen bidaia.

90. Australian azukre-kanaberak ebakitzen I (AMT-009/008)

Australiara iritsi zirenean, bero sasoia zen. Praka motzak eta tirantedun kamiseta jantzi eta kanabera berdea ebakitzera, matxetearekin. Hostoak ebakiak egiten ditu eta odolduta bukatu zuten lehen egunetan. Pixkanaka ikasten joan ziren eta gerora mauka luzeak eta eskularruak janzten zituzten. Ortozik lan egiten zuten; hotelera joateko sandaliek. Azukre-kanabera erre egiten da. Hautsarekin belztuta bukatzen zuten.

91. Australian azukre-kanaberak ebakitzen II (AMT-009/009)

Nabarniztar batzuen etxean egon ziren Australian. Goizean goiz irteten ziren azukre-kanaberak ebakitzera. Eguna nola pasatzen zuten. Kontratuan zehaztutakoa amaitu behar egunaren amaierarako; beste langileren bat gehiago sartuz gero, soldata jaisten zitzairen. Beraiek ebakitako kanaberak atzetik etortzen ziren beste batzuek jasotzen zituzten. Azukrea errotan ehotzen zen gero. Punta gaizki ebakiz gero, isuna jartzen zien nagusiak.

92. Australian, kanaberak ebakitzetik traktorea erabiltzera (AMT-009/010)

Lehengusinareen gizona zen Australian hasieran lan egin zuen azukre plantazioko nagusia. Hasieran kanaberak ebakitzen ibili zen, baina gero bere postua mutrikuar bati utzi behar izan zion. Orduan, nagusiari laguntzen hasi zen traktorearekin.

93. Makinek beharginak ordezkatu zituzten plantazioan (AMT-009/011)

Australian, lehengusinareen senarrarenean kanabera ebakitzen ez zuenez lanik, beste plantazio batera joan zen lanera, beste hiru amorotarrekin batera. Han jardun zuen denbora batez, baina gero 70 beharginen lana egiten zuten makinak jarri zituzten eta ia 200 lagun kaleratu zituzten. Beste lan bat bilatu behar gero.

94. Australian begia galdu zuen basoko lanetan (AMT-009/012)

Australian kanaberak moztan lanik gabe geratu zenean, zortea izan zuen eta pinuak ebakitzen aurkitu zuen lana hegoalderago, ezagun batzuen bitartez. Lanean hasi eta urtebete ingurura ezbeharra izan zuen lanean: begia galdu zuen. Etxekoei ez zien kontatu. Lau hilabete egin zituen ospitalean. Inguruko eta ezagunek zaindu zuten. Lanean gusturen zebilenean, etxera itzuli behar izan zuen, ama ondoezik zuelako.

95. Basoko lana gustuko; baserriko bizimodua (AMT-009/016)

9 urterekin hasi zen basoan lanean eta, gustukoa izateaz gain, ondo lan egiten zuen. Ezkondu zenean, emaztearen baserrian zeuden bi behiak kendu eta esne-behi holandarrak jarri zituen, esneak dirua emango zuelakoan. Ez zenez hala izan, esne-behiak kendu eta limusinak jarri zituen. Baserriko bizimodu

gogorra. Duela gutxira arte jardun du basoan lanean, oso gustuko izan duelako. "Kanpoko txoria" dela dio.

96. Basoko lana: pinuak eskuz kargatzen zituzten (AMT-009/018)

Basoko lanak. Garai baten pinua ebaki eta eskuz batzen zuten. Kamioira ere eskuz kargatzen zituzten, bueltaka eramanda. 80ko hamarkadan hasi ziren makinak. Australian ere makinarekin lan egiten zuen; Euskal Herrira beranduago iritsi ziren.

97. Basoko lana: zerrategia, zailtasunak, makinak (AMT-009/020)

Australiatik itzuli zenean, basoko lanetan hasi zen anaiekin batera. "Maderas Lekeitio" zerrategira eramaten zuten egurra. Basoko lanean aurkitzen zituzten zailtasunak. Garai batean eskuz garbitzen zuten basoa; gerora hasi ziren makinak. Bizkaiko eta Gipuzkoako baso askotan ibili izan da lanean.

98. Baserriko eta basoko lanak; auzokoei laguntzen (AMT-009/022)

Langilea izan da. Udan izaten zuen denbora gehixeago, baina baserrian beti egoten zen lanen bat egiteko. Basoak beti garbi edukitzea gustatu izan zaio eta 43 urtez garbitu zituen etxeko basoak. Ganaduentzako azpigarria metak eginda izaten zuen basoan. Auzokoei laguntzen ere ibili izan da; denekin ondo konpontzea gustatzen zaio.

99. Basoko lanerako erreminta egokia behar (AMT-009/023)

Basoa garbi izatea garrantzitsua da. Amoroton baso gehienetan ibili izan da. Lanerako behar den erreminta egokia izatea inportantea izan da beti berarentzat. Halaxe esaten zion Kanadan bizi den anaiari ere. Motozerrak, markak.

100. 1996ko sutea (AMT-009/025)

1996an sutea izan zen inguruan: Markinako kable baten eraginez, handik Berriatua alderako pinudiak eta Amoroto-Mendexa-Ispaster alderainokoak harrapatu zituen. Inguruetako baserriak salbatu nahian nola ibili ziren kontatzen du.

101. Lan faltarik ez zuten izaten basoan (AMT-009/027)

Zortzi urte inguruan bera izan zen nagusia basoko lanetan. Irabazten zutena banatu egiten zuten. Lan faltarik ez zuten izaten. "Maderas Lekeitio"ko nagusiak lan asko ematen zien eta beti ondo tratatu izan zituen.

102. Basoko patariak; azeriarekin zer egiten zuten (AMT-009/029)

Basoko patariak (piztiak). Garai baten ez ziren asko ikusten; gaur egun gehiago. Australian ikusten zituen. Garai batean, azeria harrapatzen zutenean, haga batean lotu eta dirua batzen zuten auzorik auzo. Berak ez du eskopetarik, ez da ehiza zalea.

103. Enparan baserria, aitaren jaiotetxea, non dagoen (AMT-011/002)

Amorotoko Odiaga auzoko Etxazar baserrian jaio zen. Ama zen bertakoa. Aita ere Amorotokoa zuen, Enparan baserrikoa. Basoan dagoela Enparan baserria dio, urrun, oinez ordubeteko bidean. Bi bizitzako baserria da. Urte askoan ez omen da inor bizi, baina oraindik zutik dagoela baserria uste du.

104. Eskolara joan beharrean, trontzarekin pinuak botatzera (AMT-011/006)

Eskolan Amoroton ibili zen, baina egun erdiz bakarrik joaten ei zen. Neba-arreba asko zirenez, gosea izaten zuten gerraostean. Bederatzi urterekin hasi zen trontzarekin pinuak botatzen. Eskolan baino gusturago ibiltzen zen mendian. Ez zuen eskola asko ikasi, baina maisuak Australiara joateko agiria sinatu omen zion eta pozik.

105. Lau urte eta erdi Australian pinuak jotzen (AMT-011/007)

Lau urte eta erdi egin zituen Australian. Hasieran kanaberak ebakitzen ibili zen, baina gero pinuak jotzeko bi lagun behar zituztela eta hegoaldera joan ziren anaia eta biak. Ingelese zekien Bergarako abade bat izaten zen bitartekari edo mezularia. Hatz punta moztu zuen Australian lanean zebilela. Hala ere, gustura ibili ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com